

Jesus Guridiren ‘Mari-Eli’ zarzuela

Aspaldiko musika, gaurko moldapena

JON KORTAZAR

Apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean Bilbo-ko Arriaga Antzokian Jesus Guridi (1886-1961) musikagilearen ‘Mari-Eli’ zarzuela ikus- teko aukera eman zuten erakun- dearen arduradunek, Calixto Bieito zuzendariaren bultzadari esker.

Mendia eta itsasoa

‘El Caserío’ zarzuela eta ‘Mari-Eli’, libretoaren azalean ‘Mary Eli’ gisa idatzita ikusi dudana, Jesus Guridiren alfa eta omega direla dirudi. ‘El Caserío’ lana ezaguna, oso ezaguna dugu, eta esango nuke nire haurtzarotik ez bada, gazta- rotik bai behintzat gaur arte la- gundu nauen musika lana da. ‘Mari- Eli’ren berririk, ordea, ez nuen ezagutzen lana. Eta Txomin Agirreren nobelarekin gertatzen den bezala, batak mendian du sus- traia eta besteak itsas giroan. Gure euskal irudi munduaren alde bie- tan.

Musika lan horrek ez zuen auke- ra handirik izan. 1936ko apirilean estreinatu zen Madrilén (beste itu- rri batzuk Bilbon izan zela diote), Carlos Arniches eta Eloy Garayren libretoarekin. Eta beste behin bai- no ez zen berriro taularatu, 1941ean, Bilbon, Bilboko Koral Elkartearen Denboraldi Lirikoan. Beraz, justu gerra aurrean eta jus- tu gerra ondoren, garai oso latze-

tan, eta bietan Bilboko Koral Elkar- teak bultzatuak. Oso ahaztua izan den lana dugu, nahiz eta eskizari ibilita, ikusi dut ‘Mari-Eli’ deituta Los Chimberos taldeak beren lehen grabazioetan lehen ekitaldiko lehen abestia grabatu zutela. Be- raz, ez da izan hain ‘ahaztua’! Bes- te garaiak, musika tradizioa man- tendu zuten garaiak. Handik edo hemendik entzuna izango zuten taldekideek janariari, eta batez ere

edariari buruzko abesti berrega- rri hori eta bere ahotsetara mol- datu zuten Chimberos taldekoek.

Gaurko emanaldia

Arrazoa du emanaldiko orkestra zuzendu duen Jon Malaxetxeba- rriak (Gernika, 1984) «Mari-Eli erreskatatzeak gure euskal histo- ria kulturalaren altxorra berresku- ratzea dakarrela» esaten duenean. Gaurkoa esaten dudanean ez da

Askok miresten dut Bieitoren lana eta uste dut oso joko handia eman diola



Arriagako antzezpenaren eszena bat, Bieitok zuzendua. ENRIQUE MORENO ESQUIBEL

soilik gaurko egunez eman dela- ko, Calixto Bieitok gaurko senti- penera ekarri duelako baino.

Askok miresten dut Bieitoren lana eta oraingo honetan (bere lanari buruzko ironiak barne) uste dut oso joko handia eman diola, bes- tela ideologia aldetik kontserba- dorea den musika lan horri. Nahi- ko motela den argumentuaren bar- nean, bizitasuna bilatu du. Ema- kume ‘batzarrera’ bi sartuz, lana lanaren barnean kokatu du, panpi- na errusiarren jokoa osatuz an- tzezpenean. Ez da soilik ikuskizu- naren mesedetan traineru bi goi- tik behera ekarri dituelako, baizik eta Ama Birjinaren irudiaren jo- koa eginez, posmodernitatearen kutsua eman dio mantso doan eta konfliktorik aipatu nahi ez duen lan bati. Irria bazen lanaren hel- buruetariko bat, indartu egin du ironia antzezpenean osatzeko or- duan.

Musika eta nazioa

Baina beti iruditu zait Guridiren musikak euskal identitatea indar- tu nahi zuela, eta euskal folklorea erabiliz, euskal senaren agerpen indartua lortu nahi zuela. Bere hel- buru nagusia euskal identitatea bermatzea zela, bere lehen lane- tatik hasita, ‘Mirentxu’ zarzuela- ren (1910) eta ‘Amaya’ (1920) ga- raietatik hasita. Zentzu honetan oso deigarria egiten zait nola lotu duen musika egileak bere esteti- ka nazioarekin eta nazioaren tra- dizio ikuspegiarekin. Herri musi- ka erabiliz, herri musika bere he- zur-mamira ekarriz, identitatea defentsa osatu zuen Guridik, bide batez Europan oso zabalduak zi- ren ideiak erabiliz.

Inoiz Guridiren ikuskizun mun- dua eta Lauaxetarena erkatu di- tut, biak direlako ideia nazional baten agerbide eta bultzatzaile era berean.

Kosmosaren anti-errepresentazio ontologiko bat

AIORA SAMPEDRO

Ia kotatzerik gabeko antzerki- testua argitaratu du Elkarrek ‘Ez- izan’ izenburupean; izan ere, he- riotzaren ondoko ezereza eten- gabe present dagoen lana da: beilatokian daude Eleneren ai- taren hilkutxaren aurrean Ele- ne bera, Mikel haren bikotekide ohia, Irene Mikelen bikote ber- rria eta baita Eleneren lagun min Edurne ere. Testuak inolako



Jon K. Sanchez.

apaindurarik gabe lauen arteko elkarriketa transkribatzen du, gaur egungo gizartearen irudi desitxuratu eta exageratu bai- na, aldi berean, zentzuzkoa egi- nez. Hartara, ia tragikomedia to- nua hartzen du egoera zoro ho- nek.

Horrela, Elenek aitaren he- riotza irensteko umore beltza darabil lagunekiko elkarriketa- tan, errukiak saihestu eta nahi ez dituen maitasun erakustal-

diekiko distantzia lortuz. Elenerekiko kontrapuntuan, Mi- kel eta bikotekidea obsesionatuak dau- de betierekotasuna- rekin, baita Edurne lagun mina ere: Mi- kelek osasunaren zaintza muturrera eramaten du, Irene bere sare-sozialeta- ko jarraitzaileentzat bizi da, arrasto bir- tuala uzteko irrikaz, eta Edurnek, tekno- logia aurreratuena- ren jabe, haur birtual bat sor- tzen dirau. Pertsonaia zentzu- gabeok kutsu nihilista ematen

EZ-IZAN
JON K.SANCHEZ
Elkar
104 or
13,50 euro



diote antzerkiari. Are gehiago, zen- tzu hori areagotu egi- ten da azken esze- nan. Zeinetan Elen- ren aita berpiztu egingo baita, alaba- rekin elkarriketa ar- gigarria izateko bizi- tzaren zentzuaz eta heriotzaz. Beilatoki berezia izango da hau hartara, bizitza- ren eta heriotzaren iragankortasunaz be- rriaz hitz egiten duen bakarra hilda- koa izango delako, bizidunak be- tierekotasunean tematuta diren bitartean.

SALDUENAK

FIKZIOA

- 1 **Pleibak** Miren Amuriza. Susa.
- 2 **Amorante frantsesa** Miren Agur Meabe. Susa.
- 3 **Hetero** Uxue Alberdi. Susa.
- 4 **Gurpilak** Estizen Artola. Txalaparta.

EZ FIKZIOA

- 1 **Txillardegi hizkuntzalari** Markos Zapiain. Elkar.
- 2 **Begiaz zabalduko zaizkizue** Irati Jimenez. Elkar.
- 3 **Irakurketaren aldeko manifestua** Irene Vallejo. Pamiela.
- 4 **Ele eta hitz, ahoz eta idatziz** José Ángel Irigaray. Pamiela.